



Zer egin dezaket DBHren ondoren?

2010-2011



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION



Zer egin dezaket DBHren ondoren?

Batxilergoa, Lanbide Heziketa, Hasierako Lanbide Prestakuntza, Musika eta Dantza, Arte Plastikoak eta Diseinua, Hizkuntzak, Helduen Hezkuntzak eta Kirol Irakaskuntzak.

Argitaraldia: 1a, 2010eko martxo

© Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gazteiz

Diseinua eta maketazioa: Iban Bujan Otero y Julen Cano Linazasoro. Donostiako "Usandizaga"
BHlko Publizitate Grafikoko Goi-Mailako Zikloa.

D.L.: BI 1416-2009

Aurkezpena

Zer egin dezaket DBHren ondoren? Bigarren Hezkuntzako ikasleek galdera hori izango dute buruan une batean edo bestean. Ikasleetako batzuk argi izango dute, eta erraz hartuko dute erabaki bat ala beste. Beste batzuek, ordea, zalantza handiak izango dituzte, dela egon daitezkeen prestakuntza-bideak ezagutzen ez dituztelako, dela bideetatik bat aukeratzeko zalantzak dituztelako.

Zenbait urte dira Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak liburuxka bat argitaratzen duela. Haren bidez, Sailak informazioa eman nahi die ikasleei zalantzak argitu eta bide baten edo bestearen alde egin dezaten.

Aurten, eguneraturik eta formatu digitalean ekarri dizuegu material hau, aurreko urteetako helburuei eutsiz. Diseinua aldatu eta edukiak berriitu ditugu, hezkuntza-esparrua bizirik baitago eta aldatzen baita antolamendu berriak aldatu ahala. Izan ere, aurten ikastetxe publiko baten ikasle batzuk beren gain hartu dute txosten honetan bildu informazioa lantzeko eta gainerako beren ikaskideei hezkuntza-sistemaren errealitatearen berri emateko erronka.

Nolanahi ere, hizpide dugun txostena ez da sakona, ez baitira jorratu existitzen diren aukeren berezitasunak. Txostenean alderdi garrantzitsuenen laburpena jaso da, modu samur eta ulergarrian. Hau da, hezkuntza-sistemaren esparru orokorra jorratu da. Hori dela eta, zenbait argibide, esteka eta toki iradoki dira, baliagarri izango zaizkienak hezkuntza-sistemari buruz informazio gehiago nahi dutenei.

Berehala egin beharko duzuen hautuan txosten hau lagungarri izango zaizuelakoan nago. Lagungarri gertatzen bazaizue, helburua betetzat joko dugu.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko urtarrilaren 27an.

Isabel Celaá Dieguez

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILBURUA

Aurkibidea

0. Hitzaurrea.

- Zer aurkituko duzu dokumentu honetan? 10

1. Batxilergoari buruzko informazioa.

- Zertarako balio du Batxilergoa, eta zein ezaugarri ditu? 14
- Nola dago antolatuta Batxilergoa?..... 15
- Batxilergo motak 16
- Aukerako ikasgaiak 20
- Modalitateko eta hautazko ikasgaiak aukeratzean kontuan hartu beharreko ideia batzuk..... 21
- Urrutiko Batxilergoa..... 22

2. Lanbide-Heziketako Prestakuntza Zikloi buruzko informazioa.

- Zertarako balio dute Prestakuntza Zikloak, eta zer ezaugarri dituzte? 26
- Nor sar daiteke Prestakuntza Zikloetan?..... 27
- Datorrena 29
- Esteka interesgarriak 29

3. Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programei buruzko informazioa.

- Zer dira Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programak, eta zertarako balio dute? 32
- Nola antolatzen dira Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programak?..... 34
- Nor sar daiteke Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programetan? 35
- Zer dago Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programaren ondoren?..... 35

4. Musika eta Dantza Irakaskuntza Artistikoei buruzko informazioa.

- Zer dira Musika eta Dantza Irakaskuntza Artistikoak, eta zertarako balio dute? 38
- Zer egitura dute Musika eta Dantza Irakaskuntzek?..... 38
- Oinarrizko Musika eta Dantza Irakaskuntzen egitura 39
- Musika eta Dantza Irakaskuntza Profesionalen egitura..... 40
- Goi-Mailako Musika eta Dantza Ikasketen egitura..... 41
- Musika-eskola batean ikastea 42

5. Arte Plastikoen eta Diseinuaren Irakaskuntza Artistikoei buruzko informazioa.

- Zer dira Arte Plastikoen eta Diseinuaren Irakaskuntzak, eta zertarako balio dute?..... 44
- Zer egitura dute Irakaskuntza hauek? 44
- Nola daude antolatuta Prestakuntza Zikloak? 45
- Nola sartzen da Irakaskuntza hauetan? 46
- Sarbide-probaren ezaugarriak 47
- Unibertsitate-Ikasketara Goi-Mailako Prestakuntza Zikloetatik sartzea 47
- Eskolak eta Ikasketak..... 48

6. Hizkuntzen Irakaskuntzei buruzko informazioa.

- Zer dira Erregimen Berezikoko Hizkuntzen Irakaskuntza Ofizialak?	50
- Ikasketa Plan Berria.....	50
- Ikasketa motak.....	50
- Tituluak	51
- Sarrera	51
- Ikastetxeak.....	51

7. Helduen Irakaskuntzei buruzko informazioa.

- Zer da Helduen Heziketa, eta zertarako balio du ?.....	54
- Nola antolatzen da Helduen Oinarrizko Heziketa?.....	54
- Nor sar daiteke Helduen Oinarrizko Heziketan?	55
- Zer dago Helduen Heziketaren ondoren?	56

8. Kirol-Irakaskuntzei buruzko informazioa.

- Zer dira Kirol-Irakaskuntzak, eta zertarako balio dute?.....	58
- Zer egitura dute Kirol-Irakaskuntza hauek?.....	58
- Nor sar daiteke Kirol-Irakaskuntzetan?	59
- Zentroak.....	59



0

Hitzaurrea

Zer aurkituko duzu dokumentu honetan?.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzen ari zara, eta erabaki garrantzitsuak hartu beharko dituzu etorkizunerako zure hezkuntza interesei buruz.

Koaderno honetan, zuretzat lagungarriak izan daitezkeen informazioa eta aholkuak aurkituko dituzu.

Lehenik eta behin, eta zure etorkizunari begira, hiru aukera dituzu une honetan zure aurrean:


- Prestatzen jarraitzea **Batxilergoaren** bidez, Goi Mailako Ikasketak egin ahal izateko: **Goi-Mailako Prestakuntza Ziklo bat edo Unibertsitate Ikasketak**. Kasu horietan, beharrezkoa izango duzu Bigarren Mailako Hezkuntzako graduatu titulua eta, ondoren, Batxilergoa izatea.
- Nahi baduzu, **Erdi-Mailako Prestakuntza Ziklo bat** egiten has zaitezke; horretarako, halaber, Bigarren Mailako Hezkuntzako graduatu titulua behar duzu.
- Edo, bestela, **Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programetara** jo behar duzu, aipatu titulazioa lortu ezean.

Zure asmoa Batxilergoa ikastea bada, geroago Unibertsitate-Ikasketak edo Goi Mailako Prestakuntza Ziklo bat egiteko, zer Batxilergo mota interesatzen zaizun aztertu eta erabaki beharko duzu, erabakia bi urte geroago egin nahi duzunak baldintzatu beharko duelako. Gauza bera gertatuko da Batxilergoa egiten ari bazara, aldi hori amaitutakoan zer egitea interesatzen eta komeni zaizun erabaki beharko baituzu: Goi Mailako Prestakuntza Ziklo bat, Unibertsitate Ikasketak...

Erdi Mailako Prestakuntza Ziklo bat egin nahi baduzu –Lanbide Heziketa, Kirol-Irakaskuntzak edo Diseinu eta Arte Plastikoetakoa–, komeni da informazioa lortzea eta gogoeta egitea hauei buruz: zer Prestakuntza-mota ematen duten, zein egokitzen diren ongien zure interes, gaitasun eta nahietara, non ikasten diren, zein baldintzatan eta abar.

Lanbide Heziketarako Programa bat egin nahi baduzu, gehien interesatzen zaizkizun Lanbide-esparruak zein diren eta zure ingurunean zer eskaintza dagoen jakin beharko duzu.

Hezkuntza-sistemaren antolaketa.



Kokatu grafiko honetan eta aztertu zein aukera daukazun.

- Erabakia hartu baino lehen, komeni da informazioa lortzea eta behar bezala hausnartzea une honetan daukazun ikasketa-bideetako bakoitzaren ezaugarriez eta ematen dizkizun aukerez.
- Ez ahaztu badaudela araututako beste irakaskuntza batzuk ere: Musika eta Dantza, Kirol-irakaskuntzak, Arte Plastikoetakoak, Hizkuntzak...
- Gainera, geroago, zure prestakuntza osatzeko beste era batzuk daude: Helduen Heziketa, Etengabeko eta Lanerako Prestakuntza...



1

Batxilergoari buruzko informazioa

Zertarako balio du Batxilergoak, eta zein ezaugarri ditu?.

Batxilergoa Bigarren Hezkuntzaren azken etapa da, eta **bi urte** irauten du; gainera, lotura estua du sarbideztat duten geroko Ikasketekin, horiek Unibertsitate-Ikasketak izan, edo Goi-Mailako Lanbide Heziketa Espezifikoa.

Etaparen honetako ikasketek hauetarako balio dute:

- Prestakuntza Orokorra emateko; Prestakuntza horrek, gizaki gisa eta adimenaren aldetik, heldutasun handiagoa erdiesteko aukera emango dizu, ezaguera eta trebetasun batzuk lortuz; hauei esker, portaera arduratsua eta kritikoa izango duzu herritar gisa.
- Ezaguera batzuk zureganatzeko; haiek baliagarriak izango zaizkizu, geroago egin nahiko dituzun ikasketetarako oinarri gisa.
- Zure interesak orientatzeko, zure lehentasunak eta aukerak bideratuz.

Batxilergoa **PRESTAKUNTZA-IBILBIDETAN** egituratzen da, eta ibilbide horiek bai etorkizunean egin nahi dituzun ikasketetarako aukerak edo interesak bai ikasketa horiek paratzen dituzten eskakizunek baldintzatuko dituzte.

Batxilergoan, ikasgai hauek izango dira:


Ikasgai komunak + Modalitateko ikasgaiak + Aukerako ikasgaiak

Era berean, lau ikasturtez egon ahal izango zara eskolatuta etapa horretan; tarte horretan ez baduzu lortu Batxilergoa gainditzea, legez ezarritako prozeduretako baten bidez amaitu ahal izango dituzu ikasketa horiek. Kontuan hartu:

1. mailatik 2. mailara gehienez ere bi ikasgai gaindituta izan gabe igaro ahal izango zara.

Nola dago antolatuta Batxilergoa?.

Batxilergoak hiru modalitate dauzka, bai geroagoko Ikasketa aukera ugari bai zure interes, gaitasun eta jarrera aniztasunari erantzuteko ezarriak.



Hurrengo orrialdeetan aurkituko dituzu 2010-2011an Batxilergoan emango diren jakintzagaiak.

Hiru modalitate horietakoren bat ikasiz ez ezik, ikasgai komunak eta Musika edo Dantzako Lanbide Irakaskuntzak gaindituz ere lor daiteke Batxilergoko titulua.

Batxilergo-motak.

Zientzien eta Teknologien Batxilergoa.

GUTXIENENKO ORDU-KOPURUA:

Lehen kurtsoa	Orduak		Bigarren kurtsoa
GUZTIENTZAKO IRAKASGAIAK Gaztelania eta Gaztelaniazko Literatura I Euskara eta Euskal Literatura I Atzerriko Hizkuntza I Filosofia eta herritartasuna Gaur egungo mundurako zientziak. Gorputz-hezkuntza Guztira:	3 3 3 2 2 2 15	3 3 3 3 3 3 15	GUZTIENTZAKO IRAKASGAIAK Gaztelania eta Gaztelaniazko Literatura II Euskara eta Euskal Literatura II Atzerriko Hizkuntza II Filosofiaren Historia Espainiako Historia Guztira:
MODALITATEKO IRAKASGAIAK Matematika I Fisika eta Kimika Biologia eta Geologia Marrazketa Teknikoa I Industria-Teknologia I 3 orduko 3 ikasgai	9	9	MODALITATEKO IRAKASGAIAK Matematika II Fisika Kimika Biologia Marrazketa Teknikoa II Industria-Teknologia II. Lurraren zientziak eta ingurumen-zientziak Elektroteknia 3 orduko 3 ikasgai
AUKERAKO IRAKASGAIAK 3 orduko ikasgai bat	3	3	AUKERAKO IRAKASGAIAK 3 orduko ikasgai bat
IKASTETXE BAKOITZAK ERABAKI BEHARREKOA	5	5	IKASTETXE BAKOITZAK ERABAKI BEHARREKOA
GUZTIRA, ORO HAR	32	32	GUZTIRA, ORO HAR

Batxilergo-motak.

Humanitateen eta Gizarte Zientzien Batxilergoa.

GUTXIENENKO ORDU-KOPURUA:

Lehen kurtsoa	Orduak		Bigarren kurtsoa
GUZTIENTZAKO IRAKASGAIAK Gaztelania eta Gaztelaniazko Literatura I Euskara eta Euskal Literatura I Atzerriko Hizkuntza I Filosofia eta herritartasuna Gaur egungo mundurako zientziak. Gorputz-Hezkuntza Guztira:	3 3 3 2 2 2 15	3 3 3 3 3 3 15	GUZTIENTZAKO IRAKASGAIAK Gaztelania eta Gaztelaniazko Literatura II Euskara eta Euskal Literatura II Atzerriko Hizkuntza II Filosofiaren Historia Espainiako Historia Guztira:
MODALITATEKO IRAKASGAIAK Gizarte Zientzietara aplikatutako Matematika I Latina I Grekoa I Ekonomia Mundu Garaikidearen Historia. 3 orduko 3 ikasgai	9	9	MODALITATEKO IRAKASGAIAK Gizarte Zientzietara aplikatutako Matematika II Latina II. Grekoa II. Enpresako ekonomia Geografia Artearen Historia Literatura Unibertsala 3 orduko 3 ikasgai
AUKERAKO IRAKASGAIAK 3 orduko ikasgai bat	3	3	AUKERAKO IRAKASGAIAK 3 orduko ikasgai bat
IKASTETXE BAKOITZAK ERABAKI BEHARREKOA	5	5	IKASTETXE BAKOITZAK ERABAKI BEHARREKOA
GUZTIRA, ORO HAR	32	32	GUZTIRA, ORO HAR

Batxilergo-motak.

Arte-Batxilergoa (Arte Plastikoak, Irudia eta Diseinua).

GUTXIENeko ORDU-KOPURUA:

Lehen kurtsoa	Orduak		Bigarren kurtsoa
GUZTIENTZAKO IRAKASGAIAK Gaztelania eta Gaztelaniazko Literatura I Euskara eta Euskal Literatura I Atzerriko Hizkuntza I Filosofia eta herritartasuna Gaur egungo mundurako zientziak. Gorputz-Hezkuntza Guztira:	3 3 3 2 2 2 15	3 3 3 3 3 15	GUZTIENTZAKO IRAKASGAIAK Gaztelania eta Gaztelaniazko Literatura II Euskara eta Euskal Literatura II Atzerriko Hizkuntza II Filosofiaren Historia Espainiako Historia Guztira:
MODALITATEKO IRAKASGAIAK Marrazketa Artistikoa I Marrazketa Teknikoa I Bolumena Adierazpen grafikoko eta plastikoko teknikak 3 orduko 3 ikasgai	9	9	MODALITATEKO IRAKASGAIAK Marrazketa Artistikoa II Marrazketa Teknikoa II Artearen Historia Diseinua Ikus-entzunezko kultura. 3 orduko 3 ikasgai
AUKERAKO IRAKASGAIAK 3 orduko ikasgai bat	3	3	AUKERAKO IRAKASGAIAK 3 orduko ikasgai bat
IKASTETXE BAKOITZAK ERABAKI BEHARREKOA	5	5	IKASTETXE BAKOITZAK ERABAKI BEHARREKOA
GUZTIRA, ORO HAR	32	32	GUZTIRA, ORO HAR

Batxilergo-motak.

Arte-Batxilergoa (Arte Eszenikoak, Musika eta Dantza).

GUTXIENeko ORDU-KOPURUA:

Lehen kurtsoa	Orduak		Bigarren kurtsoa
GUZTIENTZAKO IRAKASGAIK Gaztelania eta Gaztelaniazko Literatura I Euskara eta Euskal Literatura I Atzerriko Hizkuntza I Filosofia eta herritartasuna Gaur egungo mundurako zientziak. Gorputz-Hezkuntza Guztira:	3 3 3 2 2 2 15	3 3 3 3 3 3 15	GUZTIENTZAKO IRAKASGAIK Gaztelania eta Gaztelaniazko Literatura II Euskara eta Euskal Literatura II Atzerriko Hizkuntza II Filosofiaren historia Espainiako Historia Guztira:
MODALITATEKO IRAKASGAIK Analisi Musikala I. Anatomia aplikatua Arte eszenikoak Musika-Hizkuntza eta -praktika 3 orduko 3 ikasgai	9	9	MODALITATEKO IRAKASGAIK Analisi Musikala II Musikaren eta Dantzaren historia. Literatura Unibertsala. Ikus-entzunezko kultura 3 orduko 3 ikasgai
AUKERAKO IRAKASGAIK 3 orduko ikasgai bat	3	3	AUKERAKO IRAKASGAIK 3 orduko ikasgai bat
IKASTETXE BAKOITZAK ERABAKI BEHARREKOA	5	5	IKASTETXE BAKOITZAK ERABAKI BEHARREKOA
GUZTIRA, ORO HAR	32	32	GUZTIRA, ORO HAR

Aukerako Irakasgaiak.

Hauek dira Batxilergo-mota guztietako aukerako ikasgai komunak:

- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia.
- Atzerriko Bigarren Hizkuntza.
- Euskal Herriko Historia.

Ikasleak egindako modalitateari edo bideari lotutako aukerako ikasgaiak:

- Ordenagailuz lagundutako Marrazketa eta Diseinua (2. mailan).
- Argazkigintza.
- Pintura.
- Musika-Informatika.
- Administrazio eta Kudeaketa Prozesuak.
- Jarduera Fisikoa, Aisia eta Osasuna (2. mailan).
- Elektronika.
- Giza Fisiologia eta Anatomia (2. mailan).
- Geologia (2. Mailan).
- Mekanika (2. Mailan).
- Laborategi-Teknikak.
- Gizarte-Antropologia.
- Zuzenbidea.
- Euskal eta Espainiar Literatura XX. Mendean.
- Psikologia eta Soziología.

Salbuespen gisa, Ikastetxeek, beren eskaintzan, beraiek prestatutako aukerako beste ikasgai batzuk sartu ahal izango dituzte, era horretan, Batxilergoaren curriculum osatzen duten beste ikasgaiekin erlazionatuta, ikasleen Prestakuntza osatzeko, eta haiek Goi Mailako Hezkuntzan errazago egoki daitezen metodologia egokia erabiltzeko.

Aukerako irakasgai horiek hauek jasoko dituzte beren curriculum-proposamenetan: Batxilergoko gaitasunak eskuratzeko beren ekarpenaren formulazioa eta helburuak –gaitasunen, edukien eta ebaluazio-irizpideen ikuspegitik adierazita–; irakasteko ardura ematen zaien didaktika-sailek landuko dituzte irakasgaiok, eta ikastetxearen hezkuntza-proiektuan jasoko dira. Hezkuntza-Berrikuntzarako Zuzendaritzaren alde aurreko onarpena beharko dute.

Modalitateko eta hautazko ikasgaiak aukeratzean kontuan hartu beharreko ideia batzuk.

- 1.- Geroago egin nahi diren ikasketek (Unibertsitatekoak, Lanbide-Heziketakoak edo Erregimen Bereziko Irakaskuntza-Zikloetakoak izanda ere) oinarritzko erreferentzia izan behar dute zure Prestakuntza-ibilbidea osatzeko.
- 2.- Zure ibilbidean ikasiko dituzun ikasgaiak aukeratzean, oso kontuan hartu aukera bakoitzak zer eskakizun-maila duen, eta saiatu ahalik eta bide gehien irekita izaten.
- 3.- Ez baduzu oso argi zer interesatzen zaizun, lehen kurtsoan etorkizunean aukera askotarako bidea emango dizuten ikasgaiak aukeratu.
- 4.- Unibertsitate-Ikasketak egitea pentsatu baduzu, kontuan izan ikasketa horietara sartzeko proban, zein ikasgaiaren azterketa egin beharko duzun.
- 5.- Argi baduzu Goi-Mailako Lanbide Heziketarantz jo nahi duzula, kontuan izan hartan sartzeko dauden lehentasunak.
- 6.- Unibertsitate-Ikasketetarantz jo nahi baduzu, edo Lanbide-Ikasketetarako bidea egin, 2. kurtsoko ikasgai batzuk egiteko ezinbestekoa izango da beheagoko maila gainditzea 1. kurtsoan.
- 7.- Kontuan izan zer lehentasun eskatzen diren Irakaskuntza Artistikoetan Erdi eta Goi-Mailako Prestakuntza Zikloak egiteko.
- 8.- Ez bazaude guztiz ziur aukeratu duzun modalitatea gehien gustatzen zaizuna dela, pentsatu modalitatea aldatzeko zer aukera dituzun bigarren kurtsoan; horretarako, aukerako ikasgai gisa, beste Batxilergo bateko modalitateren bat ikastea komeni zaizu.
- 9.- Modalitatea aldatzen baduzu, beharrezkoa da, titulua lortzeko, bi kurtsoen artean modalitate berriko sei ikasgai egitea.

Oso kontuan hartu hau:

“Ez badakizu argi zer egin, aukeratu, ibilbide guztien artean, zure gogoko Unibertsitate-Ikasketetan eta Lanbide-arloetan sartzeko aukera gehien emango dizuten ibilbideak”; hau da, zalantza izanez gero, saiatu etorkizunerako biderik ez ixten.

Urrutiko Batxilergoa.

Batxilergo-mota honetan ikasteko, beharrezkoa da Erregimen Ofizialean matrikulatzea, baina ez da nahitaezkoa eskoletara egunero joatea.

Matrikula egiteko baldintzak.

Urrutiko Batxilergo Institutu batean matrikula egin ahal izateko, Batxilergoa ikasteko eskatzen diren betekizun orokorrekin gain, jarraian datozen baldintzetako batzuk bete beharko dira; baldintza horiek agiriaren bidez egiaztatu beharko dira matrikula egiteko orduan:

- a) 18 urte izatea, edo matrikulatzen den ikasturte horretan betetzea. Horretarako, ikasturtea ekainaren 30ean ematen da bukatutzat.
- b) Presentziarako ikastetxeetara ezin joan ahal izatea, hori eragozten duen gaixotasun edo minusbalioetasunen bat izateagatik.
- c) Presentziarako ikastetxeetara ezin joan ahal izatea, hori eragozten duen lan-jardueraren bat bete behar izateagatik.
- d) Aldi berean bestelako Ikasketa Ofizialak egitea, eta Ikasketa horien ondorioz ezin joan ahal izatea erregulartasunez presentziarako Batxilergo Irakaskuntzarako ikastetxe batera.
- e) Kirol-Jarduera bat egitea, kasuan kasuko Federazioak justifikatua, eta entrenamendu-orduengatik presentziarako ikastetxe batera erregulartasunez ezin joan ahal izatea.
- f) Espetxeratuta egotea.

Era berean, kasuan kasuko Hezkuntzako Lurralde ordezkariak baimena eman diezaike lehen adierazitako baldintzetako bat bera ere betetzen ez duten pertsonen Urrutiko Batxilergo Institutu batean matrikulatzeko, baldin eta, beren egoera bereziagatik, komenigarria bada Ikastetxe horietan matrikulatzea.

Matrikula egiteko epea irailaren 1etik abenduaren 31 arte da. Data horretatik aurrera, Urrutiko Batxilergo Institutuek kasu berezietan baino ezin dituzte matrikulatu ikasle berriak.

Urrutiko Batxilergo Institutuetako ikasleak kurtso oso baterako matrikula daitezke, edo ikasgai batzuk egiteko; gehienez ere hamabi. Bestalde, ikasle horiek ez dute epe mugaturik Batxilergoko Ikasketak amaitzeko, eta ez dute gutxienezko ikasgai-kopuru bat gainditu behar hurrengo kurtsoa pasatzeko; nahikoa zaie ikasgaiak banan-banan gainditzea, gaindituta dauzkatenetako bat bera ere errepikatu behar izan gabe.

Era berean, Batxilergoko Ikasketak urrutikoa ez den beste Irakaskuntza-sistema batean hasi dituzten ikasleek, Urrutiko Batxilergoko Institutu batean sartzen badira, ez dituzte gaindituta dauzkaten jakintzagaiak errepikatu beharko. Horretarako, ikaslearen ikasketa- espedientean agertzen den azken kalifikazioa kontuan hartuko da .

Irakastea.

Urrutiko Batxilergo Institutuetan, Irakaskuntza tutoretza kolektiboan eta banan-banako tutoretzen bidez egiten da.

Tutoretza kolektiboak 60 minutuko klaseak dira, eta horietan Irakasleek Programako gai bakoitzaren oinarriak azaltzen, gai horiek ikasteko egin beharreko urratsak adierazten, ariketak egiten, ikasleen zalantza orokorrak argitzen eta, oro har, ikasleek ikasgaia ongi beregana dezaten egoki deritzoten jardura guztiak egiten dituzte, klaustroak ezarritako irizpideei jarraituz.

Urrutiko Batxilergo Institutuek astero ordubeteko tutoretza kolektiboa daukate ikasle-talde bakoitzarentzat (Goizeko eta arratsaldeko txandetan errepikatzen da), ikastetxe bakoitzean ematen diren jakintzagai guzti-guztietan. Goizeko orduaren edukia arratsaldekoaren antzekoa da, ikasleak saio batera edo bestera joatea erabaki ahal izan dezan, bere egoera pertsonalaren arabera.

Ikasleak tutoretza kolektiboetara joatea borondatezkoa da.

Urrutiko Batxilergo Institutuek, tutoretza kolektiboak ez ezik, banan-banako tutoretzak ere badauzkate ikasleentzat.

Banakako tutoretzetan, Irakasleek kasuan kasuko jakintzagaiari buruz ikasleek dituzten zalantzak eta egin nahi dituzten kontsultak erantzun behar dituzte. Kontsultak ikastetxera joanda egin daitezke, edo telefonoa, faxa, posta elektronikoa, posta arrunta edo Institutuak ezarritako beste edozein sistema erabiliz.

Ebaluazio-proba guztiak presentziazkoak eta idatzizkoak dira. Proba horietako batera aurkezteko, ikasleak derrigorrez NANA, pasaporte edo baliokidea den beste agiriren bat erakutsi beharko du, nor den frogatzeko. Azterketa egitera joandako pertsonen nortasunarekin zerikusia duen edozein irregulartasunen ondorio izango da diziiplina-espedita bat abiaraztea eta zigor egokia ezartzea.



2

Lanbide-Heziketako
Prestakuntza-Zikloei
buruzko informazioa

Zertarako balio dute LHko Prestakuntza Zikloek, eta zer ezaugarri dituzte?.

Prestakuntza-Zikloen funtsezko helburua pertsonak lan-munduan errazago sartzea edo berriz txertatzea da.

Prestakuntza-Zikloak moduluka (gaika) banatuta daude, eta ikasleei Prestakuntza egokia ematen diete, aukeratzen duten Lanbidean era kualifikatuan lan egin dezaten.


Moduluek iraupen jakina dute ordutan, kasuan kasuko Zikloaren arabera, eta ikastetxean bertan egiten dira, Lantokiko Prestakuntza-Zikloa izan ezik –derrigorrezkoa Ziklo guztietan–, enpresan egiten baita; gainera, Ikasketa Iraunkorrerako Programaren bidez (Leonardo da Vinci, Erasmus), enpresa-praktikak, European, erabat diruz lagunduta, egiteko aukera ematen du.

Prestakuntza-Zikloen iraupena aldatu egiten da: Hiruhileko bat, ikasturte bat, bi ikasturte.

Bi mailatako Prestakuntza-Zikloen artean aukera dezakezu:

Erdi-Mailako Lanbide Heziketako Prestakuntza Zikloak.
Goi-Mailako Lanbide Heziketako Prestakuntza Zikloak.

Erdi-Mailako Prestakuntza Zikloak (EMPZ) eta Goi-Mailako Prestakuntza Zikloak (GMPZ) gainditzeak, hurrenez hurren, Teknikari Titulua eta Goi-Mailako Teknikari Titulua lortzea dakar.



Nor sar daiteke Prestakuntza-Zikloetan?.

Prestakuntza-Zikloak hastean, izan nahi den prestakuntza mailaren arabera, Bigarren Hezkuntzako Graduatu tituluak edo balio bereko titulu batek eta Batxilergo tituluak edo balio bereko beste batek, hurrenez hurren, **Erdi-Mailako Prestakuntza Zikloan eta Goi-Mailako Prestakuntza Zikloan** sartzeko aukera ematen dute.

Erdi-Mailako Prestakuntza Zikloan hasteko:

Erdi-Mailako Lanbide Heziketako Prestakuntza Zikloak Derrigorrezkoaren ondoko Bigarren Hezkuntzako Ikasketatzat hartzen dira.

SARRERA ZUZENA TITULAZIO AKADEMIKOA IZANIK:

- Graduata Bigarren Hezkuntzan (DBH)
- LHleko Teknikari laguntzaile titulua.
- Teknikari-titulua
- BBBko 2. kurtsoa.
- BBBko lehen bi kurtsoak eginda izatea eta egiaztatzea bien artean 2 irakasgai baino gehiago gainditu gabe ez izatea.
- Arte eta Ofizioetako 3.a
- IEEko 2.a
- Ikasketa ondorioetarako aurrekoen balio bereko beste ikasketa batzuk.

Proba bidez ere sartu ahal izango da, DBH Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu Titulua edo balio bereko beste edozein titulazio izan ezean. Kasu horretan, gutxienez 17 urte izan beharko dira, proba egiten den urtean beteta. Sarbide-proba bakarra izango da Erdi Mailako Prestakuntza Ziklo guztientzat, eta horretan, erreferentziatzat, DBHko helburu orokorretan adierazitako gaitasunak hartuko dira.

Probaren edukiak bi zatitan bilduko dira: Soziolinguistikoa (Hizkuntzaren arloa eta Gizarte Zientzien arloa) eta Zientifiko/Teknologikoa (Matematika, Natur-Zientziak eta Teknologia).

Erdi-Mailako Zikloa gainditu ondoren, Goi-Mailako Prestakuntza Zikloan sar daiteke, sarrera proba bat egin ondoren.

Goi-Mailako Prestakuntza Zikloan hasteko:

Goi-Mailako Prestakuntza Zikloan Goi-Mailako Ikasketatzat jotakoak daude.

SARRERA ZUZENA TITULAZIO AKADEMIKOA IZANIK:

- Batxilergo-titulua
- Irakaskuntza Ertainen Erreformako (IEEko) bigarren Zikloa
- Unibertsitatera Bideratzeko Ikasturtea edo Unibertsitate Aurrekoa.
- LHIIIko Teknikari espezialista, Goi-Mailako Teknikaria edo baliokidea.
- 3. modulu bat, esperimentalak. Teknikari espezialista titulua.
- Unibertsitate-titulazioa edo baliokidea.

Batxilergo-titulua edo balio bereko beste bat izan ezean, sarbide-probaren bidez sartu ahal izango da; proba horretan, Ziklo honi dagozkion Heldutasuna eta Lanbidean aritzeko gaitasunak egiaztatuko dira.

Kasu honetan, 19 urte izan beharko dira proba egiten den urtean, edo 18 urte, eta haiek proba egiten den urte naturalean bete, eta egin nahi diren Ikasketekin zerikusia duen Erdi-Mailako Teknikari-titulua izan beharko da.

Goi-Mailako Prestakuntza Zikloa gainditu ondoren, hauetan sartu ahal izango da:

- Goi-Mailako beste Prestakuntza-Ziklo batzuetan.
- Ikasitako Lanbideari lotutako Unibertsitate-Ikasketaetan.

Ziklo bietan, gutxienez Ikasketekin erlazionatutako urtebeteko lan-esperientzia izatea frogatzen bada, Lantokiko Prestakuntzatik salbuestea lortu ahal izango da. Zenbait Prestakuntza Ziklok komun dauzkaten Lanbide moduluak ere baliokidetu ahal izango dira, baldin eta berak badira izena, iraupena, amaierako gaitasunak eta ebaluazio-irizpideak.

Hezkuntza-behar bereziak izanez gero, egokitzapen baten bitartez, eskolatze-aldia malgutu ahal izango da, ikasketak egiten laguntzeko.

Aukeratutako Prestakuntza Zikloko ikasketa guztiak gainditzen ez badira, gainditutako moduluen egiaztatgiri akademikoa emango da.

Prestakuntza Zikloak ez dira soil-soilik Hezkuntza Sistematik datozen ikasleentzat, langileentzat ere irekita baitaude, jardunean izan edo ez; horregatik, Lanbide Heziketak horretarako aukera ematen dizu, Enplegurako Lanbide Heziketaren bidez, langabezian dauden langileek nahiz lanean ari direnak hartzen dute prestakuntzak.

Datorrena: Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Kredituak Transferitzeko Europako Sistema (GHEE).

Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua (GHEE) iristearekin batera, 2010etik aurrera hainbat aldaketa gertatuko dira Lanbide Heziketaren goi-mailako zikloetan. Titulurik gehienak 2000 ordukoak izango dira, hau da, bi urtekoak.

Ziklo horien moduluek kreditu-sistema berria izango dute: unibertsitateko ECTS kreditu-sistema. Kreditua laneko 25 ordu dira, gutxi gorabehera. Baina kontzeptu berria da; izan ere, ordu horietan klase teorikoak, praktikoa, ikasketa-orduak eta bestelakoak sartzen dira .

Sistema hori Europa osoan ezarriko da, eta horri esker, ikasleentzat errazagoa izango da ikasgaiak baliokidetzea eta ikasketak gehitzea.

Goi Mailako Hezkuntzarako Europar Gunearekin batera, beste zenbait gauza berri iritsiko dira; besteak beste: proiektu bat egitea titulazioa amaitzean, eta atzerriko egonaldi gehiago izatea.

Informazioa:

@ <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net> → Lanbidez → Zikloetarako Sarbide Probak

Hemen informazio gehiago aurki dezakezu Erdi-Mailako eta Goi-Mailako Prestakuntza Zikloetarako sarbideari buruz, azken deialdia, gaiak, egindako proben adibideak eta abar barne.

@ <http://www.ehu.es> → Ikasleentzako informazioa → Unibertsitate-sarrera → EHU n sartzeara → LHtik sartzeara

Prestakuntza Ziklo bakoitzetik zuzenean sar daitezkeen Unibertsitate Ikasketen zerrenda aurki dezakezu hemen.

@ <http://www.hiru.com>

@ <http://www.lanbide.net>



3

Hasierako Lanbide-
Prestakuntzarako programei
buruzko informazioa

Zer dira Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programak, eta zertarako balio dute?.

Gure Autonomia Erkidegoan **Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak** izena hartu dutenek eginkizun jakin batzuk betetzeko prestatzen zaituzte, eta, aldi berean, zure aurreko Prestakuntza-etapan (DBHn) jaso duzun oinarrizko Prestakuntzan sakontzen duzu, Irakaskuntza arautuetan ikasten jarraitzea izan dezazun, Bereziki Lanbide Heziketako Erdi Mailako Prestakuntza Zikloetan.

Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak lagungarriak dira prestakuntza bermatzeko, aukerek eta emaitzek ez dute zerikusirik izango egoera sozio-ekonomikoekin eta hezkuntza-desabantaila faktoreekin (genero-desberdintasunak, minusbaliotasunak, emigrazioa, gizarte-bazterkeria eta abar).

Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programen helburuak honako hauek dira:

- 1.-** Zure heldutasun pertsonala finkatzea, zeure burua pertsona gisa osorik gara dezazun, kultura anitzeko gizarte demokratiko batean.
- 2.-** Oinarrizko Prestakuntzaren funtsezko gaitasunetan sakontzea, ikasleei ikaskuntza iraunkor baterako aukerak eskainiz, eta arreta berezia jarritz Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari egotziriko mailen lorpenean. Hezkuntza-sisteman berriz sartzeko prestatzea, bereziki Lanbide Heziketako Erdi-Mailako Prestakuntza Zikloetan sartzeko probaren bidez.
- 3.-** Beharrezko Lanbide-gaitasunak eskuratzea, kalitateko lan-munduratzeari errazteko, bai eta, geroago, gaitasunezko Lanbide-jarduna errazteko ere, betiere segurtasunezko baldintzetan.

Programa horiek eginkizun batzuetarako prestatzen dira; hauek dira eginkizun horietako batzuk:
(*Hurrengo orrian*)

Profil Profesionalak

LANBIDE-ARLOA	HLPP
NEKAZARITZA	<ul style="list-style-type: none"> • Lorezaintza eta loradendako laguntzailea • Basoak ustiatu eta mantentzeko langilea
ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA	<ul style="list-style-type: none"> • Oinarriko administrazio-prozesuen laguntzailea
MERKATARITZA ETA MARKETINA	<ul style="list-style-type: none"> • Merkataritza eta biltegiko laguntzailea
ERAIKUNTZA ETA OBRA ZIBILA	<ul style="list-style-type: none"> • Igeltserotzako langilea estaldura arinetan • Eraikuntzako pintura, paper-jartze eta beste akabera batzuetarako langilea • Estaldura jarraituen langilea plaka eta igeltsu laminatuzko instalazioan
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA	<ul style="list-style-type: none"> • Instalazio elektrikoetako langilea
FABRIKAZIO MEKANIKOA	<ul style="list-style-type: none"> • Mekanizatzeko langilea • Galdaragile hodilaria • Soldatzailea • Zurgintzako eta eraikuntza metalikoen muntaketarako langilea
OSTALARITZA ETA TURISMOA	<ul style="list-style-type: none"> • Sukalde-zerbitzuetako langilea • Gozogintza-okintzetako langilea • Turismo-ostatuen garbiketa eta zerbitzuetako langilea
IRUDI PERTSONALA	<ul style="list-style-type: none"> • Ile-apaindegiko laguntzailea • Estetika-laguntzailea
ELIKAGAIEN INDUSTRIA	<ul style="list-style-type: none"> • Elikagai-industrietako, harategiko eta urdaitegiko langilea
INFORMATIKA ETA KOMUNIKAZIOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Ekipamendu mikroinformatikoak mantentzeko langilea
INSTALAZIOAK ETA MANTENTZEA	<ul style="list-style-type: none"> • Iturgina • Hotz-teknikaria • Berokuntzako eta ur bero sanitarioko instalazioetako langilea. • Girotzeko eta aireztatzeko instalazioetako langilea
ZURA, ALTZARIAK ETA KORTXOA	<ul style="list-style-type: none"> • Zurezko arotzeriako produktuak fabrikatzeko, muntatzeko eta haiei akabera emateko langilea
KIMIKA	<ul style="list-style-type: none"> • Poliesteren eta beirazko zuntzen lehen eraldaketetarako langilea
EHUNGINTZA, JANTZIGINTZA ETA LARRUGINTZA	<ul style="list-style-type: none"> • Garbitegiko eta konponketetarako langilea • Moda eta etxeko ehunkietarako langilea • Altzariak tapizatze eta merkataritzarako langilea
IBILGAILUEN GARRAIOA ETA MANTENTZEA	<ul style="list-style-type: none"> • Ibilgailuak konpontzeko langilea • Karrozeriako langilea
GIZARTE ETA KULTURA ZERBITZUAK	<ul style="list-style-type: none"> • Etxeko jardueretarako eta mendeko pertsonen oinarriko zainketak emateko laguntzailea
ARTE GRAFIKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Grafika erreproduktzio langilea

Nola antolatzen dira Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programak?

HLPPak bi ikasturtetan egiten dira, eta, bigarrenean, praktikak egin behar dira lantokietan. Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programek honako egitura modular hau dute:

1.- Derrigorrezko moduluak

a) Berariazko moduluak: Programaren curriculumean ezarriko Lanbide-profilaren gaitasunak garatzeko eta eskuratzeko edukiak zehazten ditu.

b) Prestakuntza-modulu orokorrak: Berariazko moduluak aprobetxamenduz egiteko edukiak ezartzen dituzte oinarriko gaitasun nahikoa garatu eta eskuratzeko eta Erdi-Mailako Prestakuntza-Zikloetako probara aurkezteko.

Bi eremutan banatuko dira:

Komunikazio eta Gizarte arloa. Hona hemen moduluak:

- Euskal Hizkuntza eta Literatura.
- Gaztelania eta Literatura.
- Gizarte-zientziak.
- Herritartasunerako Hezkuntza.

Zientzia eta Teknologia arloa. Hona hemen moduluak:

- Matematika.
- Teknologia.
- Natur-zientziak.

c) Orientazio eta Tutoretzako moduluak: Edukiak eta jarduerak zehazten ditu, ikasleen beharrian eta igurikapenen arreta pertsonalizatua ahalbidetzeko eta tutore-ekintza indartzeko helburuz.

2. Borondatezko moduluak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan graduatuaren titulua lortzera daramaten edukiak ezarriko ditu; eduki horiek, hain zuzen ere, ikasleen berreskolatzea laguntzeko eginkizuna dute, Prestakuntza prozesua jarrai dezaten hezkuntza sistemaren barruan.

Modulu horien curriculumak erreferentziatzen izango du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Helduen Hezkuntzarako garatzen dituen Prestakuntza ekintzen inguruan ezartzen duena, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan graduatuaren titulua lortzeari dagozkion ekintzak, hain zuzen ere.

Hiru eremuren inguruan antolatuko dira:

- Komunikazio-Eremua,**
- Eremu Soziala,**
- Eremu Zientifiko-Teknologikoa.**

Dedikazio-orduak:

Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak bi ikasturtetan zehar garatuko dira. Ikasturteetako bakoitzak 1.050 orduko iraupena izango du, eta asteko ikastaldia, berriz, 30 ikastordukoa izango da. Lantokiko Bertako Prestakuntza modulua salbuespena da, astean 35 orduko iraupena eduki ahal izango baitu.

Nor sar daiteke Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programetan?.

Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programetara 16 eta 18 urte bitarteko gazteak iritsi ahal izango dira, hau da, Programa hasten den urteko Abenduaren 31 baino lehenago adin hori bete eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan Graduatu-Titulua lortu ez duten gazteak.

Salbuespen gisa, ikasleen eta haien aita-amen –edo, behar izanez gero, legezko tutoreen– adostasunarekin, adin hori 15 urtera jatsi ahal izango da zenbait ikaslerentzat; hain zuzen ere, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren ikasturtea egina dutela, hirugarrenera igarotzeko baldintzetan egon ez, eta etapan behin errepikatu dutenentzat. 15 urteko adina Programa hasten den urteko Abenduaren 31 baino lehenago bete beharko da.

Zer dago Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programaren ondoren?.

Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programa bat bukatzen duten ikasleek aukera hauek dituzte: Lan-munduan sartzea edo berriz ekitea ikasketa arautuei.

Aukeratu duten sektorean eta Lanbidean errazago sartzeko, dagokien Hasierako Lanbide Programa amaitutakoan, lortutako gaitasunak eta trebetasunak aitortzeko eta frogatzeko egiaztagiri bat jasoko dute.

Ikasketa arautuei berriz ekin nahi izanez gero, hori Lanbide Heziketako Erdi-Mailako Prestakuntza Zikloen bidez egin ahal izango dute, kasuan kasuko sarbide-proba eginez.



4

Musika eta Dantza Irakaskuntza
Artistikoei buruzko informazioa

Zer dira Musika eta Dantza Irakaskuntza Artistikoak, eta zertarako balio dute?.

Musika eta Dantza Irakaskuntza Artistikoak Erregimen Berezikotzat hartuta daude Hezkuntzako Lege Organikoak definitutako hezkuntza-sisteman, eta haien helburua da ikasleei kalitateko Prestakuntza Artistikoa ematea eta etorkizuneko Musika eta Dantza Profesionalen Prestakuntza bermatzea.

Irakaskuntza hauek ez dira derrigorrezkoak, eta, ikasle bakoitzaren igurikapenen eta interesen arabera, kontserbatorioetan, Zentro Baimenduetan (Irakaskuntza Arautua) edo Musika-eskoletan (Arautu gabeko Irakaskuntza) egin daitezke.

Araututako Musika eta Dantza Irakaskuntza Profesional bihurtu nahi duten pertsonentzat dira, eta, beraz, jarduera horiek Lanbidetzat hartuak izateko halako esperantza bat dakarte lotuta; Irakaskuntza horiek kontserbatorioetan eta Hezkuntza-Administrazioak baimendutako zentroetan egiten dira, eta titulazio Ofiziala lortzeko aukera ematen dute. Hitz batean, horrelako Ikasketetan aritzeko gaitasuna eta gogoia duten ikasleei begira prestatzen dira Ikasketok, konstantzia eta bokazioa eskatzen baitituzte.

Zale gisa interesa duten pertsonen aukera ematen zaie Musika Prestakuntza lortzeko Musika eskoletan, egituran eta edukietan arautu gabea den Irakaskuntza baten bidez.

Zer egitura dute Musika eta Dantza Irakaskuntzek?

	KONTSERBATORIOAK ETA ZENTRO BAIMENDUAK	MUSIKA-ESKOLAK
Irakaskuntza-mota	Irakaskuntza arautua.	Arautu gabeko irakaskuntza.
Helburua	Profesionalen Prestakuntza.	Zaleak prestatzea eta bokazioak eta gaitasunak atzematea.
Titulazioa	Titulu akademiko Profesionala.	Diplomak, ziurtagiriak .

Musika eta Dantza Irakaskuntza arautuen antolaketa.

Musika eta Dantza kontserbatorio edo baimendutako Zentro batean Irakasteak haiek Lanbidetzat hartzea ekar dezake, lan-munduaren eskakizunei egokitutako Prestakuntza baten bidez.

Musikaren eta Dantzaren Irakaskuntza hiru Mailatan antolatzen da:

IRAKASKUNTZA	IKASTURTEAK	TITULAZIOA
OINARRIZKOA	4 ikasturte.	Ziurtagiria.
LANBIDE-ARLOKOA	6 ikasturteko gradu bat.	Kasuan kasuko Irakaskuntzaren titulu Profesionala.
GOI-MAILAKO IKASKETAK	Alda daitekeen iraupeneko Ziklo bat.	Goi-Mailako Musika edo Dantza Titulua kasuan kasuko espezialitatean (Unibertsitate-lizentziaturaren baliokidea ondorio guztietarako).

Oinarrizko Musika eta Dantza Irakaskuntzen egitura.

LOEk diotenaren arabera, oinarrizko Musika eta Dantza Irakaskuntzek Hezkuntza Administrazioek erabakitako ezaugarriak eta antolaketa izango dituzte.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, ikasleek instrumentua, Musika-Hizkuntza eta abesbatza landuko dituzte, oinarrizko Musika-Irakaskuntzek irauten duten lau ikasturteetan. Gainera, hirugarrenean, praktika instrumentala (Orkestra) ere lantzen da; ikaslea, horren bidez, taldean egindako interpretazioaren praktikan hasiko da.

Oinarrizko Dantza Irakaskuntzetan lau ikasturte daude, eta ikasleek, horietan, oinarrizko bi gai landuko dituzte: Dantza klasikoa eta Musika.

Oinarrizko **Musika edo Dantza Irakaskuntzak** gainditzeak gai horiek ikasi eta gainditu direlako **ziurtagiria** lortzeko eskubidea emango du.

Nola egiten da sarrera?.

Oinarrizko Irakaskuntzetan sartzeko, beharrezkoa da proba batzuk egitea Ikasketak egin behar diren ikastetxean. Proba horietan, gutxieneko entzumen, erritmo, gaitasun eta heldutasun baldintza batzuk betetzea eskatuko da. Sartzeko gutxieneko adina 8 urtekoa da, eta gehienekoa 14koa.

Musika eta Dantza Irakaskuntza Profesionalen egitura.

Irakaskuntza Profesionalak sei ikasturtetan daude egituratuta, eta DBHren eta Batxilergoaren paraleloan egin daitezke.

Musika Irakaskuntza Profesionalek kantu eta instrumentu-espezialitateak biltzen dituzte, orkestrarakoak izan zein ez.

Dantza Irakaskuntza Profesionaletan hiru espezialitate hauek daude: Dantza Klasikoa, Dantza Garaikidea, Dantza Espainola eta Flamenkar Dantza.

Musika edo Dantza Irakaskuntza Profesionalak gainditzen dituzten ikasleek egindako espezialitateko **Titulu Profesionala** lortuko dute. Gainera, Batxilergoko jakintzagai komunak gainditzen badituzte, Batxilergo Titulua eskuratuko dute.

Nola egiten da sarrera?.

Lanbide Irakaskuntzetan sartzeko, **ez da beharrezkoa Oinarrizko Irakaskuntzak egin izana**; nahikoa da kurtso bakoitzerako ezarritako sarrera-proba gainditzeko ezaguera egokiak frogatzea, eta ikasketa horietan errendimendua ateratzeko gauza izatea, beharrezko ezaguerak edonon lortuta ere.

Zer dago Musika eta Dantza-Irakaskuntza Profesionalen ondoren?.

Lanbide-esparruan Musikarekin zerikusia duten ikasketak egiten jarraitzeko, besteak beste, hauek ikas daitezke:

- **Irudi- eta Soinu-modulu Profesionala** (Goi-Mailako Komunikazio, Irudi eta Soinu-Teknikari titulua)
- **Irakasletza, Musika-Hezkuntzako espezialitatea** (Irakasle titulua, Musika-Hezkuntzako espezialitatean).
- **Musikaren historia eta zientziak** (Ikasketa horiek bigarren Ziklokoak baino ez dira, eta Musikaren Historian eta Zientzietan Lizentziatu titulua lortzea dakarte).
- **Komunikazioaren Zientziak, Ikus-entzunezko Komunikazio espezialitatea** (Lizentziatu titulua Ikus-entzunezko Komunikazioan).
- **Goi-Mailako Musika** (Goi Mailako Musika titulua; Unibertsitate Lizentziaturaren baliokidea).

Lanbide-esparruan Dantzarekin zerikusia duten ikasketak egiten jarraitzeko, hauek ikas daitezke:

- **Goi-Mailako Dantza Ikasketak** (Goi-Mailako Dantza titulua; Unibertsitate Lizentziaturaren baliokidea).

Goi-Mailako Musika eta Dantza Ikasketen egitura.

Musika Irakaskuntzen Goi-Maila, Ziklo bakar batez dago osatuta, eta Zikloaren iraupena aldatu egiten da espezialitateen arabera.

Musikako Goi-Maila osatzen duten **espezialitateek** lau esparru handi barne hartzen dituzte:

- Konposizioa.
- Interpretazioa (Kantua eta Irakaskuntza Profesionaletan dauden instrumentu espezialitateak ez ezik, jazz, koruen zuzendaritza eta orkestren zuzendaritza espezialitatea ere barne).
- Musikologia.
- Pedagogia (Musika Hizkuntzaren eta Hezkuntzaren Pedagogia eta kantuaren eta instrumentu-espezialitateen pedagogia).

Goi-Mailako Dantza Ikasketetan Ziklo bakar bat dago, lau urte irauten duena. Maila hori **espezialitate** hauek osatzen dute:

- Dantzaren pedagogia.
- Dantzaren koreografia eta interpretazio-teknikak.

Musika edo Dantza Irakaskuntzetako Goi-Mailako Ikasketak gainditzen dituztenek kasuan kasuko espezialitatean **Goi-Mailako Titulua** eskuratzeko eskubidea izango dute, eta hori, ondorio guztietarako, Unibertsitateko Lizentziatura tituluaren balio berekoa izango da.

Ikasketa horiek amaitutakoan, ugari eta askotarikoak dira **irtenbide Profesionalak**.

Interprete solista edo Dantzari gisa egin dezaketen karreraz gain, hauetan lan egin dezakete: Orkestrak, Musika-jauregiak, antzokiak, auditorioak, diskoetxeak, musikaren kudeaketa-enpresak, kultur fundazioak, prentsa, irratia, telebista, publizitatea, grabazio-estudioak, editorial espezializatuak, Musikaren informazio-zentroak, artxiboak, liburutegiak, animazio soziokulturala, herri-administrazioa, Irakaskuntza, ikerketa eta arte-sorrera.

Nola egiten da sarrera?.

Goi-Mailako Ikasketak egiteko, baldintza hauek bete beharko dira:

- Batxilergo-Titulua izatea.
- 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditua izana, eta sartzeko proba espezifikoa bat gainditzea.
- Titulu Profesionala izatea, betiere, meritutzat hartuko da.

Musika Eskola batean ikastea.

Ikasleari, adin-mugarik gabe, Programen edo denboren (mailako kurtsoen) exijentziari lotu gabeko prestakuntza ematea da Musika-Eskola batean egiten den Irakaskuntzaren helburua.

Hori dela eta, Musika Eskolak hau dira:

- Prestatzeko eta kultura zabaltzeko zentroak.
- Zaleen dantza edo musika taldeen jatorria.
- Etorbizuneko profesionalen harrobia.

Irakaskuntza hauek ez dakarte balio akademikoa edo profesionala duen titulurik lortzea; gainera, haien curriculumak ez dauzka araututa Hezkuntza Administrazioak.

Irakaskuntza-eskaintza.

Ikasketen antolaketa Musika-Eskola batean:

- **1. maila edo harremanetan jartzekoa**, 4-7 urtekoa. Ikasleen nortasunaren garapen orekatua sustatuko du, irakaslearekiko eta gainerako kideekiko interakzioaren bidez, soinu-jarduera erabiliz.
- **2. maila edo hasierakoa**. Maila honetan, ikasleak bere nortasuna eta sentiberatasuna garatzeko eta adierazteko elementutzat hartuko du instrumentua edo Dantza. Kontserbatorio bateko ikasle batek oinarrizko irakaskuntzetan lortzen duen gaitasuna lortzea izango da helburua.
- **3. maila edo finkatze-maila**. Kontserbatorioko 4. maila gainditzen duen ikasle baten gaitasunaren parekoa lortuko du ikasleak.
- **4. maila edo lehentasunezko jarduerakoa**. Ikaslearen interesak, dedikazioak eta gaitasunak ezartzen dute gaitasun-muga bakarra. Gaitasun hori eskolako taldeetan parte hartuz sustatuko da.

Ikasle sendotuak.

Aipatu mailaz gain, **ikasle sendotuen** maila ere eskaini beharko da. Ikasle horiek, beren gaitasunengatik, interesagatik eta aprobetxamendu bereziagatik, prestakuntza egokiaren bitartez, irakaskuntza arautuko Irakaskuntza Profesionaletan edo Goi-Mailakoetan sar daitezke, proba bat eginda.

Egin daitezkeen ikasketak?.

Musika-eskolek ikasketa hauek eskain ditzakete:

- Kantu-Ikasketak: Bakarlaria eta/edo abesbatza.
- Musika Instrumentu eta jatorri tradizionaleko Dantza ikasketak.
- Zenbait joeraren ikasketa: Jazza, Rocka, Popa, Musika elektronikoa.
- Instrumentu polifonikoen ikasketa: Pianoa, akordeoia, gitarra, organoa, klabea.
- Orkestra sinfonikoko instrumentuen ikasketa: Haria, Zurezko Haizea, Metalezko Haizea eta Perkusioa.



5

Arte Plastikoen eta Diseinuaren
Irakaskuntza Artistikoei
buruzko informazioa

Zer dira Arte Plastikoen eta Diseinuaren Irakaskuntzak, eta zertarako balio dute?.

LOEK oro har Arte-irakaskuntza guztietarako jasotako aginduaren arabera, Arte Plastikoen eta Diseinuaren Irakaskuntzei dagozkien ikasketen antolamenduak helburu hau izan behar du: ikasleei, etorkizuneko profesional diren aldetik, kalitateko arte-prestakuntza ematea, eta lanbide-prestakuntza bermatzea, irudi, produktu eta inguruen diseinuarekin zerikusia duten jarduerak behar bezala egiteko.

Arte Plastikoen eta Diseinuak hauekin zerikusia duten ikasketa guztiak biltzen dituzte: Arte Aplikatuak, Lanbide Artistikoak, Diseinua (bere mota eta maila guztietan) eta Kultura-Ondasunen Kontserbazioa eta Zaharberritzea. Bai kultura ondasunen Kontserbazio- eta Zaharberritze ikasketek bai Diseinu-ikasketek unibertsitateko maila akademikoa hartzen dute.

Arte Plastikoen eta Diseinuaren Irakaskuntzek bi helburu dituzte:

- Alde batetik, **jakintza estetikoak eta praktika artistikoak** transmititzea
- Eta, bestetik, **ofizioen eta lanbideen berrikuntza** (batzuk tradizio historiko handikoak), hausnarketa estetikoaren eta teknologia berriak hartzearen bidez, gure garaiko beharrei erantzuteko, bai eta kontsumo-ondasunen, zerbitzuen eta ekipamenduen esparruetan etorkizunean izango diren erronkak konpontzeko ere.

Diseinua funtsezko faktorea da herrialde baten lehiakortasun ekonomikoa hobetzeko, hainbat inplikazio dituelako enpresa-estrategiei begira, produktuaren kalitateari eta markari dagokienez, herrialdearen produktzioen lehiakortasuna merkatu nazionaletan bezala nazioartekoetan ere sustatzeko.

Osasunarekin, Irakaskuntzarekin, lurralde eta hiri antolaketaekin, garraioekin eta abarrekin zerikusia duten zerbitzuen Programazioan Diseinua ere kontuan hartzeak ezinbestean ekarri behar du hain artifizialak eta erasokorrak ez diren, hain hondatuta ez dauden eta, beraz, gizakiaren neurrikoagoak diren inguruneak sortzea, eta, horrenbestez, ekarpen eraginkorra egitea gizarte ongizatearen hobekuntzari.

Zer egitura dute Irakaskuntza hauek?.

HEZKUNTZA-MAILAK	TITULAZIOA
PRESTAKUNTZA ZIKLOAK	
Erdi-Maila	APDko Teknikaria
Goi-Maila	APDko Goi-Teknikaria
GOI-MAILAKO IKASKETAK	Goi-Mailako Diseinu-Titulua

LOEK, Irakaskuntza hauek antolatzean, Lanbide Heziketan baliatzen duenaren antzeko egitura erabiltzen du, eta, hala, gainera, hezkuntza sistema eta mundu Profesionala txertatzeari atxikitako egoera eta problematika guztiak partekatzen ditu.

Hala ere, Irakaskuntza horien osagai artistikoez zein plastikoez eta elementu jakin batzuek (besteak beste, Irakaskuntza hauetara sartzeko proba espezifikoak gainditu beharrak eta, Titulua lortzeko baldintza gisa, **Amaierako Proiektua** egiteak) zenbait alderdi nabarmentzen dituzte, Lanbide Heziketatik desberdintzen dituztenak eta, Erregimen Bereziko Irakaskuntzen barruan, Irakaskuntza Artistikoetan zergatik sartzen diren azaltzen laguntzen dutenak.

Kontuan hartu:

- 1.- Arte Plastikoetako eta Diseinuko Erdi-Mailako Irakaskuntzak gainditzten dituzten ikasleek Arte Plastikoetako eta Diseinuko Teknikari-Titulua jasoko dute, dagokion espezialitatean.
- 2.- Arte Plastikoetako eta Diseinuko Teknikari-Titulua Batxilergoko Arte modalitatea egiteko aukera emango du.
- 3.- Arte Plastikoetako eta Diseinuko Goi-Mailako Irakaskuntzak gainditzten dituzten ikasleek Arte Plastikoetako eta Diseinuko Goi-Mailako Teknikari-Titulua jasoko dute, dagokion espezialitatean.

Irakaskuntza hauen egiturak hiru fase ditu, bai prestakuntza zikloetan bai Goi-Mailako Ikasketetan, baina haien iraupena aldatu egiten da, bete beharreko eginkizunen konplexutasunaren eta garatu beharreko zereginen arabera.

EGITURA OROKORRA (Erdi-Mailako eta Goi-Mailako Zikloak)	
Prestakuntza-fasea ikastetxean: emandako Moduluak	
Enpresa, estudio edo lantegietako prestakuntza praktikoaren fasea	
Amaierako Lana (Erdi-Maila)	Proiektu integratua (Goi-Maila)

Nola daude antolatuta Prestakuntza Zikloak?.

PRESTAKUNTZA ZIKLOAK:

- **Erdi-Mailako Prestakuntza Ziklo** bateko Ikasketek prestaketa ematen dute aukeratutako lanbidearekin zerikusia duten lantze, gauzatze eta zuzeneko esku-hartze orokorreko eginkizunak betetzeko. Erdi-Mailako Prestakuntza Ziklo bati dagozkion Ikasketak gainditu ondoren, **Teknikari Titulua** lortzen da.

- **Goi-Mailako Prestakuntza Ziklo** bateko Ikasketek prestaketa ematen dute gauzatze hutsa baino gehiago diren eginkizunak betetzeko, eta plangintza, antolaketa, kontrol, gainbegiratze eta giza taldeen zuzendaritza jarduerak egiteko. Goi-Mailako Prestakuntza Ziklo bat amaitzean, **Goi-Mailako Teknikari-Titulua** lortzen da.

Goi-Mailako Diseinu Ikasketak.

Goi-Mailako Diseinu Ikasketen **xedea** da Diseinu-arloko profesional kualifikatuak prestatzea, produkzio industrialen eta zerbitzuen sorrera, garapena, erabilera eta kontsumoa hobetzeko. Helburu hori lortzeko, Goi-Mailako Diseinu-Ikasketek era integratuan garatzen dituzte arte-, teknologia-, pedagogia- eta ikerketa-gaitasunak.

Goi-Mailako Ikasketak egiten hasteko, beharrezkoa izango da Batxilergo-Titulua izatea eta Hezkuntza Administrazioek araututako sarbide-proba bat gainditzea. Proba horretan, Ikasketa horiek probetxuz egiteko gaitasunak, jakintzak eta heldutasuna balioetsiko dira.

Goi-Mailako Diseinu Ikasketei esker, Diseinu-Titulua lortuko da, dagokion espezialitatean, eta titulu hori, ondorio guztietarako, Unibertsitateko Diploma-Tituluaren edo horren balio bereko Gradu-Tituluaren balioidea izango da.

Goi-Mailako Diseinu Ikasketetan, espezialitateetako bakoitzean, hiru ikasturte gainditu beharko dira, ikasketen Amaierako Proiektua egiteaz gain, eta irakastorduak, guztira, 273 kreditu izango dira. Kreditutzat hartuko da jarduera akademikoaren balorazio-unitatea, hamar irakastorduen parekoa.

Kreditu horietatik, 270 ikastetxeko prestakuntzari dagozkie, eta gainerako hirurak, berriz, aipatu karrerako Amaiera-Proiektuaren tutoretzapeko jarraipenari dagozkie.

Honetan datza Karrera-Amaierako Proiektua: Diseinu originaleko proiektu bat asmatzea eta zuzen garatzea, egindako espezialitateari dagokion produkzio industrialaren esparrurako. Karrera-Amaierako proiektua gainditu ahal izateko, curriculum osatzen duten irakasgai guztiak ere gaindituta eduki beharko dira. Proiektu hori ikastetxean bertan edo beste nonbait egin daiteke, baita organismo, erakunde, enpresa, diseinu edo arte estudio gaituekiko lankidetzan ere. Ildo beretik, akademikoki zuzendutako lan profesionalak egin daitezke, edota nazioko edo nazioarteko truke-Programen barrukoak.

Nola sartzen da Irakaskuntza hauetan?.

LOEk ezarritakoaren arabera, Irakaskuntza hauetan hasteko beharrezkoak diren baldintza akademikoak betetzeaz gain, ezinbestekoa izango da kasuan kasuko sarbide-proba espezifikoa gainditzea, ikasleak bere Prestakuntza-Zikloa probetxuz egiteko beharrezko gaitasunak dauzkala egiazta dezan.

MAILA	ESKATUTAKO BALDINTZA AKADEMIKOAK		PROBA
Erdi-Mailako Zikloak.	Bigarren Mailako Graduatu-Titulua edo baliokidetzat jotako beste bat.		PROBA ESPEZIFIKOA
Goi-Mailako Zikloak.	Batxilergo Titulua edo baliokideren bat.	+	PROBA ESPEZIFIKOA
Goi-Mailako Diseinu Ikasketak.	Batxilergo Titulua edo baliokideren bat.		PROBA ESPEZIFIKOA

Dena den, titulu horiek ez dituztenek, adinarekin loturiko baldintza jakin batzuk betetzen badituzte, aukera izango dute Ikasketa horiek egiteko, bi zatitan banatutako sarbide-proba bat gaindituz gero. Bata, orokorra edo heldutasunezkoa; bestea espezifikoa.

Era berean, baliteke ikasleak sarbide-proba egin behar ez izatea, baldin eta Titulu jakin batzuk baditu, eta proban parte hartzeko eskaera aurrez egin badu, titulu horiek dauzkala egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztuta.

Sarbide-proben ezaugarriak.

Proben edukia bat etorriko da sartu nahi den Prestakuntza Zikloaren mailaren aurreko hezkuntza etapako curriculumekin, edo Goi-Mailako Diseinu Ikasketetakoarekin, eta, era berean, zerkusia izango du Arte Plastikoen eta Diseinuaren nahiz Goi-Mailako Diseinu Ikasketen lanbide arloetako bakoitzeko Prestakuntza Zikloek dauzkaten Irakasgaiekin.

Unibertsitate-Ikasketetara Goi-Mailako Prestakuntza Zikloetatik sartzea.

Lanbide Heziketako Goi-Mailako Prestakuntza Zikloetan gertatzen den bezala, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Goi Mailako Teknikari-Tituluari esker zuzenean sar daiteke Unibertsitatean, nola kasuan kasuko Prestakuntza Zikloa ikastean lortutako ezaguerei dagozkien Unibertsitate Ikasketak egiteko, hala Arte Plastikoen eta Diseinuaren Goi-Mailako Ikasketak egiteko. Horretarako, plaza kopuru jakin bat gordetzen da.

Informazioa:

@ www.arte-eskola.com

@ <http://www.ehu.es> → Ikasleentzako informazioa → Unibertsitate-sarrera → EHUn sartzea → LHtik sartzea

Prestakuntza Ziklo bakoitzetik zuzenean sar daitezkeen Unibertsitate Ikasketen zerrenda aurki dezakezu hemen.

Ikastetxeak.

IKASTETXEA	HELBIDEA	P.K.	HIRIA		FAXA	E MAILA
EASD VITORIA-GASTEIZ ADGE	AGURAINGO KOADRILA, Z/G	01013	VITORIA-GASTEIZ	945123395	945123394	escuela.arte@euskalnet.net
CAAPD KUNSTHAL APDIB	KOLON BIDE, 101 (TXANALETA)	20301	IRUN	943616466	943616466	kunsthal@kunsthal.es
IES USANDIZAGA-PEÑAFLOIDA-AMARA BHI	FELIPE IV ETORB, 1A	20011	DONOSTIA-SAN SEBASTIAN	943454366	943450112	013025aa@hezkuntza.net usandizaga.arte@gmail.com
CAAPD INUTEC APDIB	DEUSTUKO ZUBIA, 7	48014	BILBAO	944762890	944762698	inutec@inutec.es
IES IBARREKOLANDA BHI	ARBOLAGAÑE, 2	48015	BILBAO	944477016	944760107	015188@hezkuntza.net
CAAPD ARGÍ ARTE APDIB	TIVOLI ZEHARKALEA, 6-8	48007	BILBAO	944131110		info@argiate.com

Eskola eta Ikasketak.

		ARABA	GIPUZKOA		BIZKAIA		
		Escuela de Arte	Kunsthal	Usandizaga	Inutec	Ibarrekolanda	Argiate
ARTE PLASTIKOAK	ARGAZKIGINTZA ARTISITIKOA	X					X
	PUBLIZITATE GRAFIKA		X	X	X	X	
	IRUDIZTAPENA	X					X
	LORATEGIKO ELEMENTUAK		X				
	DEKORAZIO LAN PROIEKTUAK ETA ZUZENDARITZA		X		X		X
GOI-MAILAKO DIS. IKASK.	BARNEALDEAREN DISEINUA	X					
	DISEINU GRAFIKOA	X					



6

Hizkuntzen Irakaskuntzei
buruzko informazioa

Zer dira Erregimen Bereziko Hizkuntzen Irakaskuntzak?

Hizkuntzen Ikasketa Espezializatuak Erregimen Bereziko Eskola Ikasketa gisa hartuak izango dira. Ikasketa hauek, beren interes pertsonal, Profesional edo akademikoko alorrean hizkuntzak modu berezitan erabiltzeko helburuarekin, hizkuntzak ikasi nahi edo behar dituzten pertsona helduei zuzenduta daude.

Hizkuntza Eskola Ofizialak hizkuntza modernoak unibertsitatez kanpoko esparruan helduei irakasteko zentro publikoak dira. Haien helburua ikasleak gaitzea da, hizkuntzaren erabilera eraginkorra egin dezaten, komunikazio tresna den aldetik, lau hizkuntza gaitasunetan egin ere (entzumena, idatzitakoaren ulermena, mintzamena eta idazmena).

Ikasketa Plan Berria.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailaren, 46/2009 Dekretuan xedatu bezala, araubide Bereziko Hizkuntza Ikasketak Euskal Autonomi Erkidegoan jartzen dira eta, aldi berean, Oinarrizkoa, Tartekoa, Aurreratua eta Gaitasun maila-curriculuma ezartzen da.

Euskadiko Hizkuntza Eskola Ofizialak helduentzat hizkuntzen irakaskuntza eskaintzen duten Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailaren menpe dauden zentro publikoak dira.

Oinarrizko Maila (A2), Tarteko Maila (B1), Goi Maila (B2) eta Gaitasun Maila (C1) ematen dira, Hizkuntzen Europako Erreferentzi Markoan (HEEM) ezarritako mailen arabera.

Ikasketa motak.

-Ofiziala: Zuzenekoa, ikaslea klaseetara joaten da eta ikasturteka azterketak egin ditzake dagozkion deialdietan.

-Librea: Ikaslea ez da klaseetara joaten eta maila ezberdinetako ziurtapen frogetara soilik aurkezten da. Ez dago deialdi mugarik. Ezin daiteke hizkuntza baterako aldi berean matrikula ofiziala eta librea izan, ikasturte batean.

Tituluak.

Maila edo ziklo bakoitzaren bukaeran ezarritako frogak gainditzeak dagokion ziurtagiri akademikoa ematen du:

- Oinarrizko Mailaren Ziurtagiria (A2).
- Tarteko Mailaren Ziurtagiria (B1).
- Goi Mailako Ziurtagiria (B2).
- Gaitasun agiria (C1).

Titulu hauek ofizialak dira bai Euskal Autonomia Erkidegoan bai Estatu osoan.

Sarrera.

Hizkuntza Eskola Ofizialetan Ikasi ahal izateko, ezinbestekoa da hamasei urte beteta izatea ikasten hasteko urtean. Ikasten hasitako urtean hamalau edo hamabost urte dituztenak ere ikas dezakete, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan lehen hizkuntza gisa ikasitakoa ez den hizkuntza bat ikasi nahi badute.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzka titulua dutenak Oinarrizko Mailan bigarren ikasturtean (A2) sar daitezke, DBHn ikasitako atzerriko lehen Hizkuntzan.

Era berean, Batxiler Titulua dutenak zuzenean sar daitezke, nahi badute, Batxilergoan ikasitako atzerriko lehen hizkuntzan Tarteko Mailako lehen ikasturtean.

Ikastetxeak.

Informazio gehiago lortzeko: <http://www.eoieuskadi.net>.

EOI Barakaldo
EOI Basauri
EOI Bermeo
EOI Bilbao
EOI Donostia- San Sebastián
EOI Durango
EOI Eibar
EOI Getxo
EOI Irún
EOI Ordizia
EOI Santurtzi
EOI Tolosa
EOI Vitoria-Gasteiz
EOI Zalla



7

Helduen Heziketari
buruzko informazioa

Zer da Helduen Heziketa (HHE), eta zertarako balio du?.

Pertsona Helduen Heziketaren helburua da haiei oinarrizko gaitasunak lortzeko aukera ematea, eta haien garapen pertsonal eta Profesionalerako ezaguerak eta gaitasunak eskuratzea, eguneratzea, osatzea edo zabaltzea.

Helduentzako Oinarrizko Heziketak Oinarrizko Prestakuntza ematen du, hau da, alfabetizaziotik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu Titulua lortu arteko prestakuntza prozesua.

Helduak hezteko zentroetan arautu gabeko prestakuntza programak ere ematen dira; horietan ez da titulaziorik lortzen, eta helburua da helduen kualifikazioa hobetzea, bai eta haiek beren kasa ikasteko eta gizarte, kultura eta lan bizitzetan parte hartzeko duten gaitasuna garatzea ere.

Nola antolatzen da Helduentzako Oinarrizko Heziketa?.

Helduen Heziketan bi modalitate daude: presentziazko heziketa eta urrutikoa.

Presentziazko modalitatea Helduentzako Hezkuntza-Zentroetan egiten da, eta urrutiko heziketa Urrutiko Oinarrizko Hezkuntza Zentroan.

Helduen Heziketa modulutan antolatzen da, hiru esparruren inguruan:

- Komunikazioa
- Gizartea
- Zientzia eta Teknologia

Helduen Heziketa hiru mailatan dago egituratuta:

MAILAK	DEFINIZIOA	IRAUPENA
I. Maila	Hasierako Irakaskuntzak I	4 lauhileko 640 ordu 10 ordu/aste.
	Lehentasunez, prestakuntza maila apalagoa duten pertsonen egiten die kasu, eta haien alfabetizazio funtzionala da funtsezko helburua.	
II. Maila	Hasierako Irakaskuntzak II	4 lauhileko 768 ordu 12 ordu/aste.
	Funtsezko ezaguerak eta trebetasunak finkatzea, bizitza-esparru guztietan parte-hartze eraginkorra sustatzeko, eta goragoko hezkuntza eta prestakuntza mailatan sarrera erraztea.	
III. Maila	Bigarren Hezkuntza	4 lauhileko 960 ordu 15 ordu/aste.
	Prestakuntza zabaltzea eta sakontzea, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu Titulua lortzeko beharrezkoak diren oinarrizko gaitasunak erdiesteko.	

Nor sar daiteke Helduen Oinarrizko Heziketan?.

Etapa honetan parte har dezakete 18 urtetik gorakoek, edo matrikula egiten duten urte naturalean adin hori betetzen dutenek, hala nola, salbuespen gisa, 16 urte dutenek, baldin eta lan-kontratua badute eta, horren ondorioz, Erregimen arrunteko ikastetxeetan ikasi ezin badute, errendimendu handiko kirolariak badira, edo, Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programetan matrikulatuta egonik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu Titulua lortzea dakarten borondatezko moduluak egin nahi badituzte.

Ezingo dira hasi etapa honetan ikasturte berean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan edo hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programak emateko baimena duten zentroetan matrikulatuta dauden pertsonak.

Zer dago Helduen Oinarrizko Heziketaren ondoren?.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu Titulua lortu ondoren, Erdi-Mailako Prestakuntza Ziklo batera edo Batxilergo batera igaro daiteke.

Ikaslea maila eta modulu egokienetan jartzeko, egindako ikasketak kontuan hartuko dira, eta, prestakuntza prozesua abiatzean, hasierako ebaluazioa egingo da helduen Hezkuntzako Ikastetxean.

Helduen Hezkuntzari buruzko informazio gehiago lortzeko, euskadi.net-en web orrian, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Ikastetxeak eta Ikasketak.

Informazioa.

@ <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>



8

Kirol-Irakaskuntzei
buruzko informazioa

Zer dira Kirol-Irakaskuntzak, eta zertarako balio dute?.

LOEk, aurreko beste araudi batzuen ildotik, Kirol-Irakaskuntzen kalitatea hobetu eta haien kirol-sistemaren errealitatera egokitzearen alde egiten du.

Legean, irakaskuntzen sekuentzialtasuna zehazten da, irakaskuntzak egiazko kirol praktikarekin lotzen ditu eta haien gainerako irakaskuntzekin erlazionatzea errazten du, Unibertsitate Irakaskuntzarekin barne.

Geroago, 1363/2007 Errege-Dekretuak Erregimen Bereziko Kirol-Irakaskuntzen antolaketa orokorra finkatu du.

Hitz gutxitan, esan genezake ikasleei hauetarako beharrezko prestakuntza ematea dela Kirol-Irakaskuntzen xedea:

- a) Ikasleen gaitasun tekniko eta profesionala bermatzea Kirol-Irakaskuntzako kasuan kasuko espezialitatean, eta heldutasun profesionala ematea, etorkizunean gehiago ikasteko eta kualifikazioen aldaketara egokitzeko motibazioa izan dezaten.
- b) Ikaslearen modalitatearen ezaugarriak eta antolamendua ulertzea, eta bere funtzioen ondoriozko eskubideak eta betebeharrak zein diren jakitea.
- c) Zeregina segurtasun baldintzetan betetzeko beharrezkoak diren jakintzak eta trebetasunak eskuratzea.

Zer egitura dute Irakaskuntza hauek?.

Titulu Ofizialak lortzea dakarten Irakaskuntzek bi maila izango dituzte:

- **Erdi-Gradua:** Ikasleak, prestakuntzaren ondorioz, Kirol arloko Teknikari-Titulua lortuko du dagokion kirol modalitate edo espezialitatean. Erdi-Graduari dagozkion Irakaskuntzak bi mailatan antolatuko dira. Lehen mailaren helburua izango da ikasleari oinarrizko jakintzak eta gaitasuna ematea, bai kirolariak kirol-jardueran abiaraz ditzan, bai lehiaketetan haien parte-hartzea zuzen dezan, kirolarien segurtasuna bermatuz. Bigarren Mailak Erdi-Gradurako aurreikusitako prestakuntza-helburuak osatuko ditu.

- **Goi-Gradua:** Ikasleak, prestakuntzaren ondorioz, Goi-Mailako Kirol-Teknikariaren Titulua lortuko du, dagokion kirol-modalitate edo espezialitatean. Titulu horri esker, erabakitzen diren Unibertsitate-Ikasketak egin ahal izango dira.

Gaur egun, gure Erkidegoan, kirol hauei dagozkien Irakaskuntzak daude ezarrita: Futbola, Eskalada Areto-Futbola, Saskibaloia, Atletismoa, Negu-Kirola eta Mendiko Kirolak eta Eskubaloia; Irakaskuntzak Erdi-Gradukoak eta Goi-Gradukoak dira.

Nor sar daiteke Irakaskuntza hauetan?.

1.- Erdi-Graduan hasteko, bi baldintza bete beharko dira:

- a) Graduatua DBHn, edo baliokidea. 17 urtekoak edo adin hori urte naturalean betetzen dutenak ere sartu ahal izango dira, heldutasun-proba bat gaindituz gero.
- b) Sarbide-proba espezifiko bat gainditzea. Proba hori minusbaliotasunak dituztela frogatzen duten pertsonentzat egokitu ahal izango da, betiere haren helburuen mamia errespetatuta. Erdi-Gradu honetako bigarren mailan lehenengoa gainditu ondoren sartu ahal izango da.

2.- Goi-Graduan sartzeko, hiru baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Batxilergo-Titulua edo baliokideren bat. Titulu hori ez daukaten 20 urtetik gorako pertsonen antzeko mailako proba berezi bat egin ahal izango dute haren ordeiz.
- b) Espezialitate bereko kirol teknikari titulua (Erdi-Gradua).
- c) 2 eta 4 urte bitarteko esperientzia entrenatzaile titular gisa, lehiaketaren mailaren arabera.

3.- Kasu jakin batzuetan, goi-mailako kirolariek ez dituzte bete behar izango b) eta c) baldintzak.

Zentroak.

Gaur egun, Autonomia-Erkidegoan, ikastetxe hauek ematen dituzte kirol irakasketak:

Zentroak	ZENTRO PUBLIKOA (FUTBOL ETA ARETO-FUTBOLA, MENDIA, ESKUBALOA, SASKIBALOA, ATLETISMOA NEGU-KIROLAK)	
	"Kirolene"	San Ignacio auzunea, 5 www.kirolene.net 94-6811119 Telefonoa 94-6030668 Fax
	ZENTRO BAIMENDUAK (FUTBOLA ETA ARETO-FUTBOLA)	
	CAED BIZKAIA KIIB	Kosme Etxebarrieta, 5 -1 BILBO 94-4243459
	CAED ARABA KIIB	A.Gcía de Salazar Plaza GASTEIZ 945-258155
CAED GIPUZKOA KIIB	Anoeta, 5 - DONOSTIA 943-473109	

Informazioa:

@ http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/ikastetxeaketaikasketak/ikastetxeak_etahezkuntzamaialak/kirol-irakaskuntzak

